

Finantza erakundeak eta merkataritza-elkarteak hitzarmen berria sinatu dute bazkide diren negozioen salmentak eta jarduera sustatzeko

## Kutxabankek eta Getxo Enpresak tokiko negozioen lehiakortasuna hobetzeko lankidetzeta sinatu dute

- Hitzarmenak salmentak sustatzeko finantza produktu eta zerbitzu zehatzak eskaintzen ditu, 'Kutxabank Bizum Negozioak' kasu
- Plazox soluzioaren bitartez, Bankuak profesionalei eta enpresa bazkideei euren bezeroei kreditu-txartelekin eginiko ordainketak atzeratzeko aukera eskainiko die

**2024ko maiatzaren 10ean. Elena Canterak**, Getxo Enpresako presidentea eta **Maite Leturiondok**, Kutxabanken zonaldeko zuzendariak, lankidetzeta hitzarmena berri dute, elkarteko bazkide diren profesionalen eta enpresen lehiakortasuna hobetzen jarraitzera bideratutako neurri zehatzak eskainiz.

Hitzarmenak salmentak sustatzeko baliabideak eskaintzen ditu, horien artean, '**Kutxabank Bizum Negozioak**' sistema nabarmendu daiteke, Bizum ordainketa plataformaren teknologian oinarritutakoa. Finantza-erakundearen tresna aitzindari honek enpresei eta profesionalei hileroko eragiketa kopuru mugagabea egiteko aukera eskaintzen die, bai aurrez-aurreko eragiketetan nola urrunekoetan.

Getxo Enpresako bazkideen lehiakortasuna hobetzeko asmoz, Kutxabankek Merkataritzak eskaintzen dituen finantza produktuen eskaintza zabala jarriko du beren eskuetan. Kutxabank Kredit-ek, banku-taldearen kontsumo-mailegu-dibisioak, bezeroari bere erosketak Merkataritza Kredituren bitartez finantzatzeko aukera ematen dio, saltokian bertan burutzen den eragiketa arinaren bitartez, izapide eta eskari luzerik gabe.

Gainera, Getxoko enpresen eskura dago **Plazox** baliabidea ere. Honek txartelekin eginiko erosketak atzeratzea ahalbidetzen du, modu erraz eta azkarrean.

Irtenbide horiei finantza produktuen eskaintza batu zaie. Adibidez, eta negoziarako hipoteka mailegua jarduerarekin lotutako higiezinak erosteko, negozio mailegua, kapital zirkulatzailaren beharrak asetzeko edo ekipamendu profesionalen erosketak finantzatzeko.

Getxo Enpresa osatzen duten negozioek beren jardueraren eguneroko kudeaketa errazteko bereziki diseinatutako produktuak ere eskuragai izango dituzte.

### **Getxo Enpresari buruz**

Getxo Enpresak 300 saltoki, ostalaritza-negozio eta tokiko zerbitzuetako negozio inguru biltzen ditu, eta baliabideak batzen saiatzen da, sinergiak sortuz, bai banakako onurarako, bai tokiko negozio txikien multzorako; horretarako, ordezkartza-lanak egiten ditu Administrazioaren aurrean, eta zerbitzu eta jarduera ugari eskaintzen dizkie, Getxoko negozioen kudeaketaren egunerokotasunerako baliagarriak direnak.

### **Kutxabanki buruz**

Kutxabank Euskadiko eta Kordobako finantza erakunde nagusia da. 700 bulego inguru ditu, jatorriko lurraldeetan kapilaritate handiena duen bulegoen sarea du, eta Andaluzian, Madrilan eta Katalunian presentzia nabarmena du. 5.000 profesionaletik gorako lantaldearekin, Europako ikuskatzaileen arabera, gure finantza-sisteman kaudimen onena duen bankua da, eta Europako arrisku-profil onena duen hirugarren erakundea.